

3 – 7 EKAINA 2024

BILBAO EXHIBITION CENTRE S.A.
Ronda de Azkue, 1
E-48902 Barakaldo-
BIZKAIA

Tel.: + 34 94 404 00 92/84
addit3d.bilbaoexhibitioncentre.com
addit3d@bec.eu
NIF: A-95135984

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Art. 1 Antolakuntza

Art. 2 Ekitaldiaren lekua, data eta ordutegia

Art. 3 Erakusketariak eta onartutako produktuak

Art. 4 Kontratazioa

Art. 5 Erakusketariaren eskubideak

Art. 6 Derrigorrezko aseguruak

Art. 7 Baldintza ekonomikoak

Art. 8 Muntaketa, salgaiak sartzea eta desmuntaketa

1. ANTOLAKUNTZA

ADDIT3Dko Batzorde Antolatzailea Bilbao Exhibition Centre, S.A.k (BEC) eta Fabrikazio Aditiboko eta 3Dko Teknologien Espainiako Elkarteak (ADDIMAT) osatzen dute.

Jakinarazpen guztiak honi zuzenduko zaizkio:

BILBAO EXHIBITION CENTRE, S.A. (BEC)

Addit3D

Ronda de Azkue, 1

E-48902 Ansio-Barakaldo

Bizkaia. Espainia

Tel. 94 404 00 92/84

addit3d@bec.eu

2. EKITALDIAREN LEKUA, DATA ETA ORDUTEGIA

7. Addit3D edizioa Barakaldon (Bizkaia) dagoen BEC erakusketa barrutian ospatuko da **2024ko Ekainaren 3tik 7ra**.

Azokaren ordutegia 9:30etatik 17:00etara izango da ordutegi jarraituan bisitarientzat eta 8:30etatik 18:00etara erakusketarientzat.

Irekiera-ordutegian, estandak artatuta egondo dira, materiala agerian utzita.

3. ERAKUSKETARIAK ETA ONARTUTAKO PRODUKTUAK

Erakusketan parte hartzea horren helburu diren sektoreen barne jarduerak burutzen dituzten persona fisiko zein juridiko, publiko zein pribatu guztiak eta "parte hartze eskaeran" agertzen direnak eska dezakete. Onartutako produktuen fabrikatzaileek eta produktu horien eragile, banatzaile eta ordezkariak erakusketan parte har dezakete. Ezin da erakustokitik kanpoko enpresen publizitaterik egin, ezta publizitate-materiala estandatik kanpo banatu ere. Produktu berriak, erabili gabeak edo berregokituak bakarrik onartuko dira.

4. KONTRATAZIOA

4.1. Kontratazioa egiteko, parte hartzeko eskakizuna behar bezala bete, sinatu eta parte hartzeko bermearekin batera Erakusketaren Zuzendaritzari, addit3d@bec.eu posta elektronikoz bidaliko zaio, dagozkion zenbatekoak emanez, izen emateko eskubidea eta parte hartzeko aurrerapena, 1. eta 2. atalen arabera 7.artikuluari. Ez da beste inolako kontzatatziarik onartuko.

4.2. Parte hartzeko eskaerak jasotzeko lehentasunezko epea 2024ko urtarrilaren 15ean amaituko da, eskaeraren eta azaleraren arabera erantzungo zaie, geroago jasotakoei.

4.3. Kontratatu beharreko gutxieneko azalera 12 m² dira (Addit3D Pack). M² erdiak m² oso gisa fakturatuko dira.

4.4. Antolakuntza beretzat gordetzen du azalera aldatzeko eskubidea edo kokapena, inguruabarrek hala eskatzen badute, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

4.5. Ez dago baimenduta standaren zati bat edo guztia hirugarrenei lagatzea, doakoa izan arren.

4.6. Zerbitzuen kontratazioa: zerbitzuen kontratazioa web orriko erakustokien gune pribatuaren bidez egin ahal izango da, alde aurretik emandako pasoko hitza eta pasahitza erabiliz.

5. ERAKUSKETARIATEN ESKUBIDEAK

Inskripzioak honako zerbitzu eta hornidura hauek biltzen ditu:

- Erabiltzaile izena eta pasahitza erakusketaren webguneko Erakusketarien Gune Pribatuan sartzeko eta Direktorioko zein Online dendan zerbitzuak erabiltzeko, besteak beste.
- Azoka egiten den bitartean eguneroko garbiketa. Ez da azoka aurreko lehen garbiketa sartzeko.
- Erakusketarien Direktorioan izena ematea.
- Muntatzaile-paseak.
- Erakusketarien paseak: 8 pase 20 m²-raino eta beste 4, 20 m²-ko edo frakzio bakoitzeko, gehienez 60 izanda.
- Bezeroentzat doako sarrera, azokan bisitari profesional gisa sartzeko, alde aurretik izena ematen bada.

6. DERRIGORREZKO ASEGUURUAK

BECek azoka honetarako kontratatuko dituen aseguruak, BECen Partaidetza Araudi Orokorrean 33. artikuluan esana, oinarrizko ezaugarri hauek izango dituzte:

6.1. Kalte Asegurua

- Oinarrizko estaldura: Erakusgai dauden ondasunak eta estandak erre zein lapurtzea, azoka-esparruan zamalanak egitea barne.
- Aseguratutako salgaiak: Saltokiko salgaiak, oro har. Lapurketaren barruan sartzeko diren elementu informatikoak eta etxetresna elektrikoak (ebasketa alde batera utzita), ezbehar bakoitzeko 300 euroko frankiziarekin, honako salbuespen hauekin: salgai korrosiboak, sukoiak, leherkorrak, pozoitsuak, erradioaktiboak, animalia biziak eta landareak, dirua eskudirutan, merkataritzako edo bankuko objektuak, balore higigarrien, bitxien, arte-objektuen eta antigoaleko gauzen, aurreordainketako txartelen, makinaren edo bestelako ondakisunen tituluak eta kupoiak, muntaketa-eta desmuntaketa-eragiketetan.
- Kapital aseguratua: Kapital aseguratua erakusketariak partaidetza-eskaeran bertan hautatutakoa izango da. Hala ere, 12.000 €-ko gutxienerako kapitala dago. Erakusketariak ez badu kapital aitorpenik egiten, Antolaketak ezarritako gutxienerako kontratatuko dio, BECi salbuetsiz aseguratutako kapitalaren gehiegizko eta/edo gabeziagatiko erantzukizunik.
- **Gutxienerako prima: 114 € erakusketari bakoitzeko.** % 9,5ko tasa (milako), erakusketariak emandako balioari aplikatu beharrekoa edo, harpidetutakoa bada, nahitaezko gutxienerako kapitalari aplikatu beharrekoa.

6.2. Erantzukizun Zibileko Asegurua

- Oinarrizko estaldura: Azokaren ondorioz hirugarrenei eragindako kalte materialak eta gorputzekoak, lan-mendekotasuna duten erakusketako langileek eta/edo haiek azpikontratutako langileek izaten dituzten lan-istripuen ondoriozko erantzukizun zibila berariaz baztertuta geratzen da.
- Kalte-ordainen muga: 1.200.000 € ezbehar bakoitzeko eta azokan gertatutako ezbehar guztietarako, kalte pertsonaletarako 150.000 €-ko muga duena biktima bakoitzeko.
- **Prima: 110,00 € erakusketari bakoitzeko.**

6.3. Estaldura-aldia 2024ko maiatzaren 1tik ekainaren 14ra bitartekoa da.

7. BALDINTZA EKONOMIKOAK

Parte hartzeko baldintza ekonomikoak honako hauek dira:

7.1. Parte hartzeko aurrerapena. Bilbao Exhibition Centre, S.A. ren aldeko transferentzia bidez ordaindu beharko du edo bankuan helbideratuko da, 30,00 €/eskatutako m² bakoitzeko + %10eko B.E.Z.a, gehienez 3.000,00 € ordainiz.

Zenbateko hau itzuli egingo da, baldin eta erakusketan parte hartzeko baimena ez badu. Emandako zenbatekoa AURRERAPENA da edo konturako entrega, guztira ordaindu beharreko zenbatekotik kenduko dena.

7.2. Formatuak eta kontratazio-tarifak

Lehtasunez izena emateko epea 2023ko urtarrilaren 20an bukatuko da. Parte hartzeko hiru formatu eskaintzen dira, "Parte hartzeko formatuak eta tarifak" dokumentuaren arabera. Tarifak hauek dira:

2023ko urtarrilaren 15 baino lehen	2024ko urtarrilaren 15en ondoren
Azalera librea	
125€/m ²	145€/m ²
Addit3D Pack	
12 m ² ----- 3.150 €	12 m ² ----- 3.800 €
18 m ² ----- 4.575 €	18 m ² ----- 5.450 €
24 m ² ----- 6.000 €	24 m ² ----- 7.100 €

Prezio horiei BEZa aplikatuko zaie. (%10)

7.3. Kontratutako azalera.

Erakusketariak lehiaketan parte hartzeko prezioa partida hauen batura izanen da:

1. Moduluaren prezioa edo azalera alokatzeko prezioa (onarpen-eskabidean hautatutako aukeraren arabera), biak zergen aurretik.
2. Solairu bikoitzeko m²-aren prezioa oinarritzko prezioaren% 50ean fakturatuko da.
3. Erakusketariak, gainera, 6. baldintzan jasotako aseguruen primen zenbatekoa ordaindu beharko du lehiaketan parte hartzeko.
4. Nahitaezko zerbitzuak eskatzeko azken eguna 2024ko apirilaren 20a da, eta hautazko zerbitzuak eskatzeko azken eguna 2024ko maiatzaren 5a.
5. Dekorazio-enpresek eta/edo erakustokiak standa eraikitzeke kanona ordaindu beharko dute dekorazio libreko erakustokien muntaketetarako, BECeko zerbitzuak kontratatzeke aurreikusitako tarifen arabera.
6. Beren standaren dekorazio librea aukeratzen duten erakustokiek, gainera, 2024ko apirilaren 20a baino lehen, dekorazio proiektua Zerbitzu Teknikoen Departamentura bidali beharko dute, onets dezaten.
7. Gogoratu BECek hainbat motatako erakustoki modularrak eskaintzen dizkiela. Horiek denda on-line bidez (erakustokien gune pribatua) sar daitezke, Id + pasahitza erabiliz, eta diseinuko stand-proiektuak egiteko aukera ere badute.

7.5. Onarpen eskaera 2024ko martxoaren 15a baino geroago aurkezten duten erakustokiek, espazioko alokairuaren zenbatekoa ordaindu izanaren frogagarria erantsi beharko diote. 7.3) eta nahitaezko aseguruen primak (7. art.) 6.1 eta 6.2) edo, bestela, standa giltza eskura izateko zenbatekoa.

Nolanahi ere, aurrerapenari dagokion zenbatekoa, lehiaketan parte hartzeko prezio osoa eta kontratatutako aseguruen primak muntaia hasi baino 30 egun lehenago ordaindu beharko dira. Une horretatik aurrera, onarpena behin betikoa eta ezeztazina izanen da erakusketariarentzat.

7.6. Partaidetza ezeztatuz gero, addit3d@bec.eu helbidera idatziz jakinarazi beharko da, erakusketariak ordaindutako zenbateko guztiak galduz.

Antolatzaileek, ezinbestean, azoka bertan behera utzi beharko balute, erakusketariak BECi parte hartzeagatik ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratuko dituzte.

8. MUNTAKETA, SALGAIAK SARTZEA ETA DESMUNTAKETA

8.1. Muntaketa.

2024ko maiatzaren 20ko 8:00etan hasiko da eta 2024ko ekainaren 2ko 15:00ak baino lehen bukatu beharko du.

8.2. Erakusketarako materialaren irteera.

2024ko ekainaren 8ko 8:00etan hasiko da eta 2024ko ekainaren 14ko 20:00ak baino lehen bukatu beharko du.

8.3. Desmuntaketa

Ezin izango da 2024ko ekainaren 8ko 8:00ak baino lehen hasi eta 2024ko ekainaren 14ko 20:00ak baino lehen bukatu. Lehiaketa bukatutakoan, jasotako baldintza beretan gelditu beharko da. Lurzoruan eta hormetan edozein aldaketa epe horretan bertan konpondu beharko da.